

Azken urteotan gazteen aurreikuspenak nabarmen hobetu dira

Gazteen Euskal Behatokiak *Aurrera Begira* izeneko ikerketaren bosgarren edizioa, 2017 urteari dagokiona, aurkeztu du.

Ikerketa hau Gazteen Euskal Behatokiak burutzen du urtero 2013tik eta helburua bikoitza da: alde batetik, Euskadiko gazteek nola antzematen duten oraina jakitea eta, bestetik, epe laburrean, zeintzuk diren beraien etorkizunerako aurreikuspenak ezagutzea.

Horretarako Euskadiko gazteriaren lagin adierazgarri bati inkesta bat egiten zaio telefonoz. Lagina 15 eta 29 urte bitarteko 1512 gaztek osatzen dute.

Ikerketaren emaitzak 10 adierazletan laburbiltzen dira. Adierazle horiek lan egoera eta emantzipazio-egoera aztertzen dute batez ere eta haien bilakaera oso positiboa izan da, oro har, ondoko taulan ikus daitekeen moduan.

AURRERA BEGIRA: 5 urteko bilakaera



Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean txosten osoa kontsulta daiteke eta bertan urtez urteko bilakaera eta sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera aldea ikusi.